

# EMAKUMEEN OROIMENENAN

## Euskal emakumeen guda zibil eta dikatatduraren biktimak



## AURKIBIDEA

SARRERA	1
APLIKAZIO ALORRA	3
OINARRIZKO GAITASUNAK	4
HELBURU OROKORRAK	6
EDUKIAK	7
IBILBIDE PEDAGOGIKOA	8
METODOLOGIA	9
ERREKURTSO DIDAKTIKOAK	10
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	11
UNITATE DIDAKTIKOA	12
TESTUINGURUA	12
LEHEN EKINTZA	15
BIGARREN EKINTZA	23
HIRUGARREN EKINTZA	25
LAUGARREN EKINTZA	28
BOSTGARREN EKINTZA	30
ERANSKINAK	33

## SARRERA

Gerra zibilean eta frankismo garaian asko izan ziren nazioarteko zuzenbideak debekatu eta kondenatutako jazarpen larrien biktimak, hala nola tortura, judizioz kanpoko exekuzioak, biztanleria zibilaren aurkako erasoak, politikagatiko, erlijioagatiko edo arrazagatiko jazarpena, espetxeratze arbitrarioak, bortxazko lanak eta gizadiaren aurkako krimen gisa definitutako beste hainbat ekintza. Urraketa horiek, gaur egun, ez dute ordainik izan eta estatuak ez ditu, oro har, aintzat hartu.

Giza eskubideen urraketa larri edo masiboen biktimak nazioartean aitortuak izan dira eta hiru atal nagusitan bildu daitezkeen hainbat eskubide aitortu zaizkie:

- Egjarako eskubidea.
- Justiziarako eskubidea.
- Ordaina izateko eskubidea.

Memoria historikoaren berreskurapena lantzeko aurkezten ditu **Bakeolak MATERIALA** pedagogiko hauek, iraganari jarrera autokritikoarekin begiratzeko asmoz.

Begirada horrek ordaindu gabeko bidegabekeriak eta urraketak aztertzeko eta memoria eredugarria eraikitzeko aukera emango du, oraina eta etorkizuna "argitzeko" aukera emango duena, hemen eta orain ez errepikatze baldintzak bermatuta.

Landutako denbora-tartea 1936 eta 1977 artean igarotako urteetara mugatuko da eta hor hiru aldi hauek bereizi ahal izango ditugu:

- Espainiako gerra zibila (1936-1937).
- Diktadura frankista (1939-1975).
- Trantsizio demokratikoa (1975-1977). Bizitutako diktadura luzearen ostean oraindik ere inertzia eta dinamika frankistak zeudelako eta, beraz, nazioarteko hiru printzipio eta jarraibideak urratzen dituzten egoerak eta zapalketak gertatu zirelako gehitu dugu azken garai hori.

MATERIALA pedagogiko honek memoria historikoa berreskuratzeko alorraren barruan hainbat gai landuko dituzten **4 unitate didaktiko** ditu.

- Gerrako haurrak.
  - Emakumeak gerran.
  - Politikariak eta sindikalistak.
  - Erbesteratutako eta kontzentrazio-esparruetara bidalitako pertsonak.
- Unitate didaktiko honetan, gerraostearen etapa generoaren ikuspegiari dagokionez landuko dugu modu zehatzagoan: 1939tik 1949. urtera bitarteko tarteak landuko dugu. Garai hartan, emakumeek errepresioaren baldintza gogorrenak jasan zituzten gerraostekoari eta frankismoari dagokienez.

## APLIKAZIO ALORRA

Material pedagogiko hauek ikastetxeetako irakasleei eta elkarteetako hezitzaileei zuzenduta daude, gazteekin garatu ahal izateko.

Ekintza soltean, modu independentean, edo guztia prozesu gisa hartuta erabili ahal izango da.

Unitate didaktiko bakoitza **3-4 saioz** osatuta dago. Saioak erraz egokitu ahal izango dira ikastetxe edo talde bakoitzeko programazioetara, hezkuntza-sistemako oinarritzko gaitasunekin zerikusia baitute.

Bereziki ondo egokituko dira tutoretza, bizikidetza, etika eta antzeko alorretako programetan, baina curriculumeko bestelako alorretan txertatzeko ere aukera eskainiko dute, hala nola euskara, gaztelania, historia, ingurunearen ezaguera edo aisialdiko elkarte eta taldeek hiruhilekoan zehar programatutako ekintzetan.

## OINARRIZKO GAITASUNAK

### Hizkuntza-komunikazioa:

- Kontzeptu, datu eta pertsonaia historikoak argitzea.
- Gaiak berezkoa duen oinarrizko hiztegi espezifikoa eskuratzea.
- Landutako gaiei buruz argudiatzea eta eztabaidatzea.
- Esaldiak eta kontzeptuak lotzea.

### Mundu fisikoaren ezagutza eta horrekiko interakzioa:

- Hainbat leku, bide, ibilbide eta kontzentrazio-esparru mapan aurkitu eta kokatzea.
- Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.
- Esanguratsuak diren alderdiak eta esanguratsuak ez direnak bereiztea, eta iturriak lotzea eta alderatzea.
- Internet bidez eskuratutako informazioa bilatzea, hautatzea eta aztertzea.
- Informazioa modu kritikoan txertatzea eta aztertzea.

### Ikasten ikastea:

- Hainbat motatako arrazoibideak aplikatzea eta kausa anitzeko azalpenak bilatzea.
- Hainbat bidetatik eskuratutako informazio-iturriak, informazioaren bilketa, sailkapena eta azterketa ezagutzea.
- Lan egiteko, denbora antolatzeko eta banatzeko, kontsultak egiteko eta abarretarako ohiturak hartzea.

### Autonomia eta norberaren ekimena:

- Gaiei buruzko informazioa bilatzea.
- Egindakoa aztertzea, planifikatzea, ekitea, berrikustea eta ondorioak ateratzea ekartzen duten eztabaidak eta taldeko lanak egitea.

## Gizarte eta herritar gaitasuna:

Gaitasun hau garrantzi handikoa da, gazteak herritar arduratsu eta aktibo bilakatzeko aukera ekarriko duelako. Horrez gain, hau guztia jasotzen du: herritarren eskubide eta betebeharren ezagutza, balio demokratikoeakiko errespetua, eta elkartasunaren, tolerantziaren eta gizarte demokratikoan parte hartzearen garrantzia.

Europako Parlamentuak (2005) honela definitzen zituen "gizarte eta herritar gaitasunak" jasotzen zituen:

*"Gaitasun pertsonalak, pertsona artekoak eta kultur artekoak jasotzen dituzte gaitasun horiek eta pertsonak bizitza sozial eta profesionalean eta, batik bat, gero eta gizarte dibertsifikatuagoetan, modu eraginkor eta eraikitzailean parte hartzeko eta, kasuan kasu, gatazkak ebazteko prestatzen dituzten jarrera guztiak biltzen dituzte. Herritar gaitasunak hiritar bizitzan erabateko partaidetza izateko prestatzen ditu pertsonak, kontzeptu eta egitura sozial eta politikoen ezagutzari esker eta partaidetza aktiboko eta demokraziako konpromisoari esker".*

Material pedagogiko hauen garapenaren eta txertaketaren xedea parte-hartzaileek gizarte eta herritar gaitasuna eskuratzea da.

## HELEBURU OROKORRAK

- Hezkuntza-komunitateei eta herritarrei, oro har, memoria historikoa berreskuratzeko baliabideak hornitzea.
- Gertatu zenari (bidegabekoa izan zenari) buruzko gaitasunak eta ezagutzak hobetzea eta errepika ez dadin lan egitea.
- Emakumeen memoria historikoa berreskuratzea eta justizia egitea aitortpenaren eta ordaina ematearen ikuspegitik, gertatutako urraketen aurrean.
- Adiskidetzta lantzea eta bereziki biktimei arreta eskaintzea, sufritutako biolentziaren lekuko moralak izan diren aldetik.
- Gure iragan hurbilean gertatutakoa zabaltzea eta giza eskubideen sustapenarekin uztartzea.



## EDUKIAK

### Eduki kontzeptualak

- Espainiako eta Europako historiaren barruan aztertutako gertakariak testuinguruan kokatzea.
- Gerra zibilaren kausak, garapena eta ondorioak.
- Gertakari horien ikus-entzunezko baliabideak erakustea.
- Gatazka nazioartekotzea.

### Prozedurazko edukiak

- Informazio-iturri ugariarekin lan egitea.
- Datuak eskuratzea, hautatzea eta antolatzea.
- Norberaren ideiak eta iritziak adieraztea eta zabaltzea.
- Informazioa balioestea, datu objektiboaren eta iritziaren arteko bereizketa eginda.
- Oinarrizko kontzeptuak definitzea.
- Garai historiko horretara hurbiltzea ikus-entzunezko baliabideen bidez.
- Gertakari historikoen kausa eta ondorioen azterketa.

### Jarrerazko edukiak

- Gurearekiko desberdinak diren iritziekiko errespetua.
- Jarrera biolento eta bidegabeekiko gaitzespena.
- Ideia politiko desberdinak ezagutzeko interesa.
- Gerrek eragiten dituzten izugarrikeriekiko eta zorigaiztoko ondorioekiko jarrera kritikoa.
- Jarrera irekia, laguntzailea eta tolerantea pertsona arteko harremanetan eta/edo biktimekiko harremanetan.
- Gure gizartearen funtzionamendua arautzen duten mekanismo eta markoekiko interesa, bereziki, jarrera demokratikoak eta giza eskubideak arautzen dituztenekiko.
- Elkarriketa gatazkak konpontzeko baliabide gisa onartzea.

## IBILBIDE PEDAGOGIKOA

Unitate didaktikoek ibilbide hau jarraitzen dute ekintzak garatzeko:

1. **Gertakarien ezagutza eta analisisa.** Historiari erreparatzea eta urte hauetan eragindako eta jasandako biolentzia aztertzea.
2. **Gertakarien ikus-eremua hedatzea.** Gerran, diktaduran eta trantsizioan zuzenean edo zeharka eragin zuten kasuak kokatzea.
3. **Sentimenduen adierazpena bideratzea.** Sentimenduak eta emozioak adierazten laguntzea eta empatia lantzea, hau da, bestearen lekuan jartzeko gaitasuna lantzea.
4. **Biktimizekiko elkartasunezko konpromisoa garatzea.** Giza eskubideekiko errespetua, horien nolana hiko urraketekiko gaitzespena (exekutatuak, espetxeratuak, errepresaliatu ekonomikoak, erbesteratuak...) eta norberak justiziarekin eta ez-biolentziarekin duen konpromisoa.

Material pedagogiko hauek bizitutako gertakariak eta gertatutako biktimizekiko hurbilagotik ezagutzeko eta kontzientzia aldatzeko aukera emango dute, bizitutako bidegabekeriekiko sentsibilitatea areagotuta.

## METODOLOGIA

Material pedagogikoez planteamendu metodologiko hauek jarraitzen dituzte:

- Material pedagogikoez partaidetza bultzatzen dute garatzerakoan, eztabaidarako eta hausnarketarako esparruak eskainita.
- Ariketak talde txikietan egindako lanarekin hasi eta talde handian egindako lanarekin osatzen dira.
- Hartzaileei orientabideak emango zaizkie garai hartan gertatutako gatazkei erantzuteko ekimen ez-biolentoak ezagutu eta iker ditzaten.
- Metodologia sozioafektiboa erabiliko da eta ikuspegi horrek talde osoaren partaidetza aktiboa eskatzen du. Ikasiko dugunak osagai kognitiboak, emozionalak eta praktikoak izango ditu.
- Ebaluazio jarraitua egingo da, programa txertatuko den kolektiboetako errealitateetara egokituko diren aldaketak egin ahal izateko.
- Taldearen, irakasleen eta hezitzaileen ebaluazioa bultzatuko da.

## BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Liburuak ez dira aski irudiekin eta teknologiarekin ohituta dauden ikasleak eta/edo gazteak motibatzen. Pertsona dinamikoak eta parte-hartzaileak nahi baditugu, hori bultzatuko duten baliabideak erabili behar ditugu. Ikasleak beren ikaskuntza-prozesuan sartzea funtsezkoa da.

Horien arreta errazago erakarriko da material ezberdinak erabiliz gero, hala nola argazkiak, dokumentalak, filmak, Interneteko bilaketak...

Material horiei esker, ikasleak errazago inplikatu eta sentsibilizatuko dira eta ezin hobeak izango dira testuinguru historikoa azaltzeko, ikasleek errealitatearen ideia zehatza egiteko aukera izango dutelako, hausnarketa eta eztabaida bultzatuta.

Ikasleena Internetekin hezitako belaunaldia denez, ezin dugu alferrik galdu ariketa komunikatiboak lantzeko baliabide horren aukera.

Ikaslea zenbat eta interesatuago eta barneratuago egon ikaskuntza-prozesuan, are gogobetegarriagoak izango dira emaitzak, hortaz, baliabide guztiak gutxi izango dira ikasleak ikasteaz goza dezan.

Baliabide horiek nahi den eragina izan dezaten, irakasleek eta hezitzaileek irudimenezko lana egiteaz gain, baliabideak egokitu eta sekuentziatu egin beharko dituzte.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Aldez aurreko informazioa eskuratzetik abiatuta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruzko erabakiak hartzeko prozesutzat hartzen da ebaluazioa.

Aurrez azaldutako helburuen eta gaitasunen betetze maila balioestea da asmoa.

Ebaluazio-sistemak garatu beharreko eginkizun bakoitzean planteatutako produktuak, baliabideak eta ebaluazioak jasoko ditu; baita material pedagogikoen ebaluazioa ere, oro har. Horregatik, produktuen eta ekintzen ebaluazioari erantzungo dio.

Ebaluazioak balioetsi beharreko ikaskuntzen alderdi esanguratsuenak zehazteko eta espezifikatzeko balio duten ebaluazio-irizpideak izango ditu.

Irakasleek/hezitzaileek ebaluatzeko proposatutako tresna erantsitako taula baten bidez azaldu ahal izango litzateke<sup>1</sup>.

### Ebaluaziorako tresnak

-Balioespen objektiborako probak: idatzizkoak edo ahozkoak izan daitezke eta unitate didaktiko bakoitzaren amaieran egingo dira.

-Eguneroko lanaren behaketa: partaidetza, etxean egindako lana, banakako lana, taldekako lana eta testu-iruzkinak.

-Lan-koadernoak eta planteatutako ariketetarako fitxak.

-Jarrera eta jokaera: bertaratzea, puntualtasuna, interesa, ekimena, materialaren erabilera egokia, eta adiskideekiko eta bizitzako kontakizunekiko errespetua.

## UNITATE DIDAKTIKOA

---

### EUSKAL EMAKUMEAK, GERRA ZIBILAREN ETA DIKTADURAREN BIKTIMAK

#### TESTUINGURUA

#### “Errepresio sexudunaren” dimentsiok diktadura frankistan

---

Gerra Zibilean eta gerraostean, gizateriaren aurkako krimenen eta abusu larrien biktimak ugari izan ziren. Emakumeak ez ziren salbuespen izan, beraiek ere kalte horiek jasan zituzten-eta; baina historia (emakumeen historiarekin, oro har, gertatzen den bezala) ezkutatu eta isilarazi izan dute.

Garai hartako testuingurua etxekotasuna oinarri zuten ideien ingurune egituratuaren arabera zen. Industria-gizarte modernoaren definizioaren arabera, emakumezkoak ama eta emazte sakrifikatuak, familiak arduratzen zirenak eta beren bizitza-proiekturik gabeak ziren. “Etxeko aingeru” edo “emazte bikaina” izeneko emakumezkoen eredu izatera deituta, emakumezkoen nortasun-ezaugarriak ugalketaren bereizketa eta izaera sexual biologikotik formulatzen ziren. Inplizituki, eraikuntza kultural horrek modernotasunaren oinarritzko baldintza aitortu gabe uzten zituen emakumeak: indibidualtasunik gabe.

Simone de Beauvoir-ek salatu zuen moduan, emakumezkoek “bigarren sexua” deitzen zitzairen eta haien nortasuna beste sexuaren, gizonezkoenaren, arabera eraikitzen zen. Emakumezkoak emakumezkoen betebeharrak eskusibotzat jotako etxeko lanetarako arduratzea sendotu egin zuen eredu horrek eta emakumea etxean itxita geratzea ekarri zuen. Gizonezkoen eta emakumezkoen espazioak banatu izanaren ondorioz, espazio publikotik baztertuta geratu ziren. Debeku hori egon zen emakumezkoen sufragoarekiko erresistentziaren eta ordezkaritza politikoan genero-parekotasuna lortzeko zailtasunen atzean.

Emakumeekiko errepresioaren baldintza gogorrenak gerraostean, 1939 eta 1949 artean, gertatu ziren.

Gerraostean, emakume-eredu bakarra ezarri zuten eta bere alderdi publikoena garatu nahi zuten emakumeak difamatu egin zituzten. Horixe bera gertatu zitzairen, esate baterako, Clara Campoamorri edo Victoria Kenti. Hauen ohoreari eta

duintasunari eraso egiten zieten eta, garai hartako arauak zirela eta, horrek familia osoari eragiten zion.

Gerra Zibilean bando frankistak izandako garaipenaren ondorioz sortu zen gizarte berriak emakumezkoentzako rol apalgarria zuten gordeta. Izan ere, Gerra Zibilaren aurretik eta gerra garaian ere nagusi zen rolean baneratu zituzten berriro. Ez dugu ahaztu behar emakumezko guztiek ez zutela genero-rol tradizionala hautsi; beren senarren emazte izan eta etxeko lanetarako etxean sartuta egon behar zuten "etxeko aingeruaren" edo "emazte bikainaren" eredu femeninoen arabera, sexuan oinarritutako eraikuntza soziala zela eta. Emakumezkoen nortasun-ezaugarriak ugalketaren izaera eta bereizketa sexual biologikotik formulatzen ziren.

Hori hala ez izateko ahalegina egin zutenek erregimen berriaren errepresioa eta basakeria jasan zituzten. Gerra amaitu zenean, emakumeek berdintasunerako bidean irabazitakoa galdu zuten: II. Errepublikan izapidetutako dibortzioaren legea indargabetzea 1932an, eskola mistoa debekatzea, errepresio sexuala (ezkontza aurretik birjintasuna galtzea konbentuan edo espetxean sartzearekin zigortzen zen), ezkontza zibilaren debekua eta abar. Gai batzuetan zerbait irabazi zuten arren, ez dugu ahaztu behar eskubide horiek ez zituztela eskuragarri emakumezko guztiek eta erresistentziak ugariak zirela ezkerretik zein eskuinetik. Bi bandoetako bakar batek ere ez zuen eredu tradizionala hautsi. Hezkuntza mendeko emakumeak lortzeko tresna bilakatu zen, alegia, etxean egon eta eliza katolikoaren arauen arabera ereduak zirenak lortzeko tresna; mutil eta nesken gaiak eta edukiak desberdinak ziren, "beren desberdintasun historikoak eta biologikoak kontuan hartuta".

Eredu berri hori ezartzeko, erregimenak garbiketa soziala egin zuen. Lehen gerraostean, emakumezkoen errepresioa gogorra izan zen. Emakume asko espetxeratu egin zituzten; askotan, pilaketa- eta gainpopulazio-baldintzetan.

Galdera hau egin beharko genieke geure buruei: nondik sortu zen emakumezkoen gorputzak zigor-domeinu publikoko modu gisa finkatzeko borondate hori? Zer ezkutatzen da emakumezkoaren gorputza boterea dutenen ahalmena erakusteko borrokarako esparru gisa erabiltzen duen keinu arbitrario eta exhibizionista horren atzean? Emakumearen gorputza arerioa makurrarazi eta behin betikoz garaitu ahal izateko gerra-fronte gisa erabiltzea.

Funtsean, bi motatako preso politikoak ziren:

-Borrokaldian edo ostean aktiboki parte hartu zuten errepublikanoak, komunistak, anarkistak, sindikalistak, feministak, nazionalistak; izan ere, beren ideiek ez zeukaten lekurik erregimen berri eta errepresiboan.

-Emakumeak, alargunak, umezurtzak; inolako mantenurik gabeak eta lan egiteko inolako aukerarik ez zutenak, "gorrien senitarteko" izatearren edo bando errepublikanoarekin loturaren bat izatearren umiliatuak. Emakume horien atxiloketak xantaia egiteko edo beren familiartekoak zigortzeko baliatzen zituzten, edo, batzuetan, "beren gizonak geldiarazten" jakin ez izana egozten zieten. Hori dela eta, emakume asko espetxeratu zituzten, urteetan zehar, akusazio zehatzik gabe.

Baina, errealitatean, ideologia bateko edo besteko presio politikoak izateagatik estigmatizatzeaz gain, emakumezko izatea zen urraketak, irainak, bortxaketak eta sexu-indarkeria jasatea eragiten ziena. Ideal batzuk edo beste batzuk izatea edo testuinguru geografiko honetan jaiotzearen kasualitate hutsa horren guztiaren osagarria baino ez zen.

## HELBURU ZEHATZAK

1. Gazteak ezkutuko biktimizazioa ezagutzea, gerrako eta gerra osteko diktaduran bizi izan duten emakumeen egoera, alegia.
2. Gazteak gerra zibilean eta Francoren garaian gertatutakoari buruzko ikuspegia zabaltzea.
3. Gazteak gure iragan hurbilean egin ziren urraketan kontzientzia hartzea.
4. Gazteak modu kritikoan aztertzea injustizia sozialeko egoerak.
5. Gazteak enpatizatzea, bestearen lekuan jartzea.
6. Gaztea bestearenganako humanizatzea.
7. Gazteak gerrako emakumeetako konpromisoak garatzea bere errealitateari hurbilenean.
8. Gazteak giza eskubideen aplikazioak gure errealitatean duen garrantzia ulertzea.



## LEHE EKINTZA- historian koka gaitzen

### LABURPENA

Gizartea haren une historikoan kokatzea xede duen ekintza da. Aldi berean, gainera, Espainiako Gerra Zibilak euskal emakumeentzat zehazki ekarri zituen ondorioak eta kausak azaltzen ditu.

### HELBURUAK

- Gaztea landuko dugun une historikoan kokatzea.
- Gazteek gerrak eta gerraosteak biztanleria zibilarentzat, oro har, eta emakumeentzat, zehatzago, ekarri zituen ondorioak ezagutzea eta horien inguruko gogoeta egitea.

### IRAUPENA

50 minutu

### MATERIALA

Kanioia edo proiektorea

Proiektatzeko irudiak

## EKINTZAREN GARAPENA

Proiektagailuaren laguntzarekin, argazki hau erakutsi eta jarraian azaltzen diren galderak egingo dizkiegu. Gazteek ahoz erantzungo diete galderei ikaskidearekin batera; ondoren, talde osoarekin landuko dituzte galderak.

*-Zure ustez, zer ari da irudian gertatzen?*

*-Zure ustez, non hartu zuten irudi hori?*

*-Zer etortzen zaizu burura irudi hori ikusita? Zer iradokitzen dizu?*

*-Zure ustez, zergatik dute ilea larru-arras moztuta?*

*-Zure ustez, nork eta nori egiten zioten hori eta zergatik?*

*-Zer sentitzen dutela uste duzu?*

*-Gogorarazten al dizu beste inon ikusitako irudirik? Zein?*

Ekintzaren iraupena 15 minututakoa izango da.



## AZALPENA

### ERREPRESIO SEXUDUNA

Errepresio espezifikoko modu bat eta ezaugarri eta helburu zehatzak zituena zegoen: "sexuduntzat" jo dezakegun errepresioa.

Emakumea, talde sozial gisa, gizonezkoen boterearen mende geratzen zela zioen ideiarekiko modu paraleloan, gehitu beharrekoa da talde horren barruan ere alde handia zegoela emakume bakoitzaren posizionamendu politikoaren arabera. Hau da, garaileen bandotzat hartutakoaren barruan zeudenen eta garaituen talde handiaren barruan zeudenen artekoa. Birilizazioa Estatuaren ezaugarrietako bat zen; aldiz, abian jarri zuten politizidioa (diskurtso frankistatik eratorritakoa ez zen politika eta ideologia oro errotik desagerraraztera zuzendutako indarkeria) Estatu horren baitan gobernu frankista legitimatzeko mekanismo bat zen.

Bi alderdiak batera gertatu ziren eta, ondorioz, frankismoaren indarkeria estrukturalaren baitan, emakumezko errepublikanoekiko errepresio sexuduna gertatu zen. Gerra-garaietan emakumezkoek zuzendutako indarkeriaren erabilera gehien landu duen historiografiak, oro har, indarkeria sexuala hitza erabiltzen du eta horren arrazoia honako hau da: indarkeria hori da kontrol patriarkalaren modu eragingarriena eta muturrekoena. Dena den, frankismoak emakume errepublikanoentzat eragin zuena modu zehatzagoan aztertu ahal izateko, Maud Joly egileak errepresio sexuduna hitza erabiltzen du herritartasun femeninoa balio gabetzea eragiten duelako alde batetik, eta feminitatearen edo sexuaren oinarriko ezaugarriei zuzenean eraso egiten zieten errepresio-mekanismoak erabiltzen zituelako bestalde.

Ezberdintasun sexualean oinarritutako errepresio-espezifikotasuna: erreprimitu egiten zituzten emakume izateagatik, eta errepublikano izateagatik. Gerra Zibilean, emakumezkoen parte-hartze politikoa zigortu egiten zuten.

"Emakume errepublikano" hitza errepublikanismoaren eta emakumeek II. Errepublikako politikarekin ezarri zituzten lotura ugarien aldaera ideologikoak biltzeko erabiltzen da. Mónica Morenok azaltzen duen moduan, Gerra Zibilean, emakume errepublikano hitzaren esanahia zabaldu egin zen. Indar progresista guztien aldekoak bildu eta bando errepublikanoan zegoen aniztasun politikoa agerian utzi zuen: alderdi politiko eta sindikaletako militanteetatik hasi eta Errepublikaren zaletuak arte.

Errepresio frankistaren biktima izan baina atxilotu edo kartzelatu ez zituzten emakumeentzat, erregimen berriak estigma sozialaren ereduak zeukan. Umiliazio eritualak ziren, batez ere landa guneeetan, emakumeentzat baino ez, eta

jendaurrean egiten ziren. Umiliazioak emakumezkoen eredurako erreserbatuta zeuden. Modu espezifikotan zigortzen zituzten emakumezkoak zirelako eta etxeko aingeruaren, eta etxeko andre bikainaren eredua, emakume-eredu nagusia zena, hautsi izanagatik.

Ezagun dira hainbat kasu: ilea larru-arras moztea, errizino-olio bidezko garbiketak, jendaurrean iraintzeko desfileak, eta, betiere, bortxaketak ahaztu gabe, komisaria, kuartel eta espetxeetan ezohiko ez zirenak.

Feminitatearen definizio-elementuetan eragin zuzena zuten torturak ziren eta, horrenbestez, bi helburu argi zituzten: haien izaera politikoagatik zigortzea eta emakumezko izateagatik umiliatzea/ezereztatzea. Politizazio maila edozein izanda ere, garrantzi handiagoa ematen zioten emakume izateari. Ondorioz, errepresio-mekanismoen biktima bihurtu ziren.

**Ilea larru-arras moztea** ekintza sinbolikoa zen; izan ere, emakumezkoen ikurrik nabarmenena ile luzea zen. Emakume bati ile luzea kentzea, ideologia berriaren arabera, hutsaren pare uztea zen, emakume zirela ezeztatzea.

**Errizino-olio bidezko garbiketen** bidez, emakumeak "haragikoiak" zirela adierazi nahi zen; izan ere, higiena ukatzeak pertsona arbuiagarri bilakatzea zekarren, ideologia frankistak bilatzen zuen arrazaren purutasunetik urrun.

**Jendaurreko desfileen bidez**, aurreko zigor batzuk burutu ondoren, emakume horiek iraingarri bilakatzen zituzten eta emakume horiei esleitzen zitzairen rola ezagutzera eman nahi zuten, helburu bikoitzarekin: herritar neutralei edo zalantzatiei beldurra eragiteko eta atxilotuen gizonezko senideak umiliatzeko.

**Bortxaketak:** Errepresioak genero zehatza hartzen zuen honako baldintza hauen arabera: nori zuzenduta zegoen, helburuak zein ziren eta aplikatzeko metodoak zein ziren. Horien baitan, sexualagoa zen indarkeria zegoen eta, batez ere, bortxaketek osatzen zuten.

Indarkeria kasu batzuen ondorioz, haurdunaldiak ere egon ziren. Ondorioz, emakume batzuk seme-alabekin espetxeraten zituzten. Ia emakume horien guztien senarrak edo bikoteak hilda, kartzelatuta edo erbesteratuta zeuden; beraz, gehienetan, ez zeukaten beste familiartekorik beren ondorengoak uzteko. Adingabe horiek beren amen bidea jarraitu zuten, eta errepresioa jasan zuten, amek bezala.


Kartzelatutako emakume horien seme-alabak, erregimen berriak "buru motelen seme-alabak" izenez kalifikatzen zituen, hala definitu baitzituen Antonio Vallejo-Nájera psikiatruk. Beraiei Francok patu latza ezarri zien: beren familiak bereiztea,

garai hartan preso politiko ziren aitak eta amak. Ume horien gurasoek guraso-ahala galdu eta estatuak edo beste familia batek -jakina, erregimenaren jarraitzailea- eskuratu zuten. Horietako askok ez zituzten beren gurasoak berriro ikusi.

Eta ez ditugu ahaztu behar **“gorrien senitarteko” ziren emakumeak**; emakume horiek atxilotu edo kartzelatu ez bazituzten ere, Espainiako geografian zehar mugitu ziren beren senar edo semeen atzetik, kartzelaz kartzela, behar zutena emateko ahaleginetan eta bizirik irauteko lan duinak egiten. Emakumeek egin zuten lan gogor hura.

**“ERREPRESIO SEXUDUNAREN” DIMENTSIOAK DIKTADURA FRANKISTAN.** Irene Abad.  
*University of Utah (Utah-ko unibertsitatea).* Fotokopiak

## Aitormena-Itziar Olabeaga



-Orainoan, umiliazio publiko horietako bat jasan zuen emakumezko baten senide batek egindako testigantza irakurriko dugu. Euskal preso politiko ohi baten, Iñaki Anasagastiren, amona da. Amona Itziar Olabeaga zen.

Ekintza honek 10 minututako iraupena izango du.

## Geografian kokatzen

Ekintza honek 15 minutuko iraupena izango du

Unitate didaktikoan aipatu dugun moduan, erregimen frankistaren ondorioak era batean edo bestean eta toki askotan emakume askok jasan zituen (ez soilik Euskadin). Emakumeen aurkako zigor eta umiliazio ugari egin zuten. Gertatzen zena testuinguruaren arabera hobeto zehazteko, historia emakumeen euskal espetze ezagun batean, Saturrarangoan, kokatuko dugu.

Proiektagailuaren bidez, irudi hauek ikusi eta galdera hauek egingo ditugu:

### 1) (Saturrarán hondartza-Mutriku- Gipuzkoa) **gaur egun**



*Ba al dakizu non dagoen? Ba al dakizu zer izen duen?*

*Zer adierazten dizu irudiak?*

### 2) Saturrarán hondartza – Emakumeen kartzela **1937-1944**

*Ba al dakizu non dagoen?*

*Ba al dakizu zer izen duen?*

*Lehen begiradan, zer dela esango zenuke?*



## AZALPENA

Mutriku izeneko Gipuzkoako udalerrian (Ondarroaren-Bizkaiaren alboan) zegoen Saturrarango emakumeen espetxea da.

1937ko abenduaren 29an, Francoren tropek itsasertzean zegoen antzinako bainuetxea eta hotela izandakoa Espainia osotik iritsitako emakume errepublikano "oso arriskutsuen" presondegi gisa egokitu zuten eta hala iraun zuen 1937tik 1944ra arte.

700 presorentzako toki bakarrik zuen arren, bertako populazioa beti izan zen 1.500 giltzapetu baino gehiagokoa. Kartzela hartatik, 16 eta 80 urte arteko 4.000 emakume baino gehiago igaro ziren. Guztira, 172 lagun hil ziren han: 116 emakumezko eta 56 haur. Heriotzak kartzela zaintzeaz arduratzen ziren mesedetako mojek eragindako tratu txarren zein gaixotasunen ondorio izan ziren. Baltasar Garzón epaileak jasotako testigantzan irakur daitekeenez, gainera, ehun haur inguru desagerrarazi zuten.

-Saioko azken 10 minutuak erabiliko ditugu saioa baloratu ahal izateko taldeko lana egiteko.

## ITURRIA



Bakeola. Bizikidetzak, Gatazka eta Giza Eskubideak



## BIGARREN EKINTZA. CINE FORUM: SATURRARÁN, KARTZELA

### LABURPENA

“Izarren argia” filmeko zati batzuk erreproduzituko ditugu. Saturrarango espetxean gertatutako benetako jazoeretan oinarritutako film horrek errepublikano baten alarguna semearekin batera kartzelara horretara eraman zuteneko historia kontatzen du.

### HELBURUAK

Gerraosteko historiaren zati jakin batean gertatu zena ezagutzea gazteak; zehazki, Saturrarango emakumeen espetxean gertatutakoa.

- Gertaera historiko eta gizakiaren gertaera horri buruzko gaztearen ikuspegia zabaltea eta gerrak emakume askorentzat izan zituen ondorioen inguruko gogoeta egitea.

-Gazteak gerra jasan zuten emakumeekiko iritziz gizatiarragoak sortzea.

### IRAUPENA

50 minutu

### MATERIALAK

Filma proiektatu ahal izateko pantaila edo ordenagailua

Proiektorea

“Izarren Argia” filma

## EKINTZAREN GARAPENA

Lehenengo eta behin, aurreko saioan azaldu dugunari helduko diogu berriro: non dagoen, zer izan zen eta zer bihurtu zen. Saturraranen jatorriari buruzko oroitzapenak eguneratutakoan, "Izarren Argia" filmeko zati batzuk ikusiko ditugu.

Benetako gertaeratan oinarritutako filmak emakumezkoak pilaketa penagarriko egoeran tratatu zituzteneko krudeltasuna eta historia erakusten ditu.

6 sekuentziatan banatuta, filmaren hainbat zati ikusiko dugu (guztira, 30 minutu):

**Beldurra:** espetxera iritsi berriak: 6:00-10:50 (5')

**Presioak:** seme-alabak beste familia batzuei entregatzeko egindako presioak. Zigortzeko modu bat zen. 16:12-22:00 (6')

**Errepresioa:** mojak errepresioaren baliabide. Haietakoren batek aurka eginez gero, erregimen berriaren aurka zegoela esan nahi zuen eta, horrenbestez, zigorra jasan zezakeen. Beldurra nagusi 22,00 -26 00 (4')

**Promes faltsuak eta gezurrak:** lapurtutako haurrak 28:30-35:30 (7')

**Gerraren amaiera:** bando nazionalaren garaipena: 51:00-55:00 (4')

**Internazionala:** Kide baten heriotza - Matxinada Internazionala kantatuz 55-59 min (4')

Ondoren, guztion artean, galdera hauei erantzungo diegu:

-Zer zatik eragin dizue zirrarara handiena?

-Zer egingo zenukete zuek egoera horren aurrean?

-Egoera hori bidezkoa/bidegabekoa dela uste al duzue? Zergatik?

-Protagonistak zer sentitzen duela uste duzue? Eta haren semeak?

-Hitzetarako txanda: eragin dizun sentipen, zirrarara edo emozioen bat.

## ITURRIA

Bakeola. Bizikidetzaren, Gatazka eta Giza Eskubideak

## HIRUGARREN EKINTZA. ATXILOTUAK

### HELBURUAK

-Gazteak enpatia lortzea eta emakume haien egoeran jartzea, zer sentitzen zuten sentitzen saiatzea eta haien errealitatea ezagutzea.

-Modu dinamikoan, gerraosteko eta diktadurako testuinguruan, pertsona bat edo beste bat izateak zer eragin zuen ulertaraztea.

### IRAUPENA

50 minutu

### MATERIALAK

Pertsonaien txartelak

Artilea

Boligrafoak

Post-it ak

### EKINTZAREN GARAPENA

Bakoitzari bete beharreko rola zein den aipatzen duen txartela emango zaio. Gainerakoek ez dute jakingo zer edo nor diren. Hauek izan daitezke rolak:

- Frankista bat.
- Herria.
- Komunista baten alaba (gurutze morea).
- Feminista (gurutze morea).
- Emakume errepublikanoa (gurutze morea).
- Soldadu errepublikano baten ama (gurutze morea).
- Soldadu frankista bat.

• ...

Inork ezingo du esan zer pertsonaia defendatu beharko duen. Pertsona guztiek zer izango diren argi dutenean, galdera eta/edo baieztapen batean oinarritutako eztabaida egingo dugu. Adibidez:

*-Zer bando da ona? Nork irabaziko du gerra?*

Minutu batzuetan, eztabaida egin daiteke eta pertsona bakoitzak dagokion rola antzestu beharko du nor diren esplizituki esan gabe.

Amaitutakoan, soldadu frankistak diren pertsonak beren karta altxatu eta haien ustez gurutze morekun txartelak dituzten emakumeak atxilotu beharko dituzte. Atxilotzeko, zutik jarri eta eskumuturrak lotu beharko dizkiete (leun) artile pusketa batekin.

"Atxilotutakoan", pertsona horiek umiliazioaren "ibilaldia" egin beharko dute. Bertan, post-itak erabilia, hasierako rolaren arabera, gainerakoek emakume bakoitzaren inguruan uste dutena idatzi eta erantsi egin beharko diete (bizkarrean, kontuz). Ibilaldi horretan, bi ilaratan jarri beharko dute eta atxilotutakoen gurutze morea dutenek erditik pasatu beharko dute.

Ibilalditxoa amaitzean, gurutze morea dutenek post-it horietan idatzitakoa irakurri beharko dute ahots ozenez.

Ondoren, taldeak gogoeta egin beharko du:

-Zer sentitu duzue?

-Zertan oinarritu zarete zuen argudioak defendatzeko?

-Zer iruditu zaizue taldeko gainerakoaren portaera? Zergatik?

-Identifikatu sentitu dituzuen 4 emozio (beldurra, lotsa, haserrea, poza, amorrua, tristura eta abar).

-Egin iruditu zaizuenaren inguruko lanketa.

FRANKISTA BATEN ALABA	ERREPUBLIKANO BATEN ALABA ✘
SOLDADU ERREPUBLIKANO ✘ BATEN ALARGUNA	FEMINISTA ✘
SOLDADU FRANKISTA BAT	SOLDADU FRANKISTA BAT
SOLDADU FRANKISTA BAT	SOLDADU FRANKISTA BAT
EMAKUME ERREPUBLIKANOA ✘	PRESO DAGOEN EMAKUME BATEN SEMEA
SOLDADU FRANKISTA BATEN AMA	SOLDADU ERRE PUBLIKANO BATEN AMA ✘
HERRIA	EMAKUME FRANKISTA

## LAUGARREN EKINTZA. NOR DA....?

### LABURPENA

---

Ekintza honetan, Espainiako gerraosteko historiako partaide izan ziren euskal emakume batzuei aurpegia, izena eta abizenak jarriko dizkiegu.

### HELBURUAK

---

-Gazteek Espainiako gerraoste zibileko partaide izan ziren euskal emakume batzuei izena jartzea.

-Gazteek modu aktiboan informazioa bilatzea eta emakume haien bizitza ikertzea.

- Gazteak gerrak oro har populazio zibilean eta, modu zehatzagoan emakumeen kasuan izandako ondorioak ezagutzea eta horren inguruko gogoeta egitea (gatazka belikoek izaten dituzten zorigaitzoko ondorioak).

### IRAUPENA

---

50 minutu

### EKINTZAREN GARAPENA

---

Gerra garaian ekintza esanguratsuak bultzatu edo egin zituzten, eta gaur egun erabat ezezagunak diren emakumezkoak aurkeztea da helburua. Horretarako, lehenengo, haietako bat aurkeztuko dugu:

**María Teresa Verdes.** <http://emakumeenoroimenean.net/es/maria-teresa-verdes/>

Dinamika horren **helburua** ekintza jakin batzuk ezagutzea eta izena ematea eta egindakoa zein ekintza haiek egin zituzten emakumezkoak baloratzea da. Gainera, helburua beste emakume batzuekiko interesa bultzatzea eta historiak bere izena ezabarazi zuen emakume haietakoren baten inguruko ikerketa biltzen duen fitxa egitea da.

Horretarako, nor izan zen eta zer egin zuen azaltzen duen bideoa ikusiko dugu. Gainera, elkarrizketa hau ere ikus dezakegu: <https://vimeo.com/120776192>

Ondoren, solasaldi txiki bat egin ahal izateko galderak egingo ditugu: Ba al zenekien emakume horren inguruko ezer? Zer iruditzen zaizu egindako lana? , Eta abar.

**Ekintzaren bigarren zatian**, 3 gai nagusi landuko ditugu. Horretarako, talde bakoitzari datu bat emango zaio. Horren inguruko fitxa txiki bat prestatu eta ondoren gainerako taldeei labur-labur azaldu beharko die. Horretarako, collagea, eskema, idatzia eta abarrak egin ahal izango dituzte. Hauek izango dira datuak:

- *(Santurran) – Carmina Merodio*
- *Miguela Sáez Ramila*
- *Casilda Mendez Hernáez*

## ITURRIA

Bakeola. Bizikidetzta, Gatazka eta Giza Eskubideak

## BOSTGARREN EKINTZA. INVESTIGANDO POR EL BOSQUE O JARDIN DE LA MEMORIA

### LABURPENA

Behin gazteek gerrako emakumeen egoera ezagutzen dutela, ingurune hurbilean gerrako emakumerik badagoen ikertu eta zabaltzea da ekintzaren helburua.

### HELBURUAK

- Gazteak gerraren erruz sufritu zuten emakume guztiei omenaldia egitea.
- Gazteak ingurune hurbilean pertsona horien bizitzako historia duin bihurtzea.
- Gazteak ingurune hurbilenean gerrako emakumeen kasuak ikertzea.

### IRAUPENA

50 minutu

### EKINTZAREN GARAPENA

Aldez aurretik egin beharreko lana familiari gerrako emakumerik badagoen edo ezagutzen den galdetzea izango da.

Gazteek ikerketa-lana egin eta ingurune hurbilenean gerrako emakumeak topatzea izango da helburua (auzoan, herrian...).

Lokalizazio-lana egiteko astebete utziko dugu.

Hurrengo urratsa barne-erabilerarako bloga sortzea izango da eta bertan hauek jasoko ditugu:

- Gure auzoko/herriko emakume kopurua.



- Gure auzoko/herriko emakumeren izenak.
- emakumeak joan ziren lekuen izenak.
- Gure auzoko/herriko emakumeen argazkiak.
- Gure auzoan/herrian grabatzea lortutako lekukotasunen bat.

Bloga produktua izango da. Behin bloga amaituta, gertatutakoa gogoratzeko eta oroitzapen bizi horrek ahazten ez uzteko tokian zer egin behar litzatekeen galdetuko diegu gazteei.

Ideiarik bururatzen ez bazaie, horra hor denen artean abian jar daitezkeen bi ideia:

-Ikastetxeari eta/edo udaletxeari memoriaren lorategia edo basoa egiteko lekua eskatzea. Bertan alde egin behar izan zuten gerrako emakumeak adina zuhaitz edo lore landatzea.

Basoaren edo lorategiaren sarreran gerrako emakumeen izenekin plaka jartzea eta bertan basoaren sinbologia eta oroitzapenaren garrantzia azaltzea.

-Emakume horien historia kontatzen duen toki mailako argitaraldia duen egunkaria editatzea eta auzoan eta/edo herrian banatzea.

Memoria historikoaren aitorpena lantzeko ideia gehiago:

- Saturraran bisitatzea.
- Emakume haiei buruzko hedapen-kanpaina egitea.
- Eta abar.

## AZTERKETARAKO URRATSAK

*Nola sentitu zara ekintza horrekin?*

*Ekintza gustatu al zaizu? Ideiaren bat bururatu al zaizu emakumeen oroitzapenean laguntzeko? Herriak egin al du zerbait horri dagokionez? Gerrako emakumerekiko elkartasuna azaltzea garrantzitsua dela iruditzen al zaizu? Zergatik?*

*Zer egin dezakegu hori berriro errepikatu ez dadin?*



**Bizikidetza, Gatazka eta Giza Eskubideak**  
Convivencia, Conflicto y Derechos Humanos

edetaldea

## ITURRIA



Bakeola. Bizikidetza, Gatazka eta Giza Eskubideak

.

## 1. ERANSKINA. TESTUINGURU TEORIKOAN JARTZEA

### Emakumea Espainiako Gerra Zibilean Espainiako gerra zibila

1936ko uztailaren 17an Errepublikarekin amaitu nahi izan zuen altxamendu militarra gertatu zen Marokon. Altxamendua antolatu eta zuzendu zuten jeneralak Mola, Franco eta Sanjurjo izan ziren.

Uztailaren 18an matxinada penintsulara zabaldu zen eta espero zuten arrakasta izan ez bazuen ere, une hartatik aurrera Espainia bitan banatuta geratu zen: eremu nazionala eta eremu errepublikanoa. Altxamenduak arrakasta izan zuen landako Espainia kontserbatzailean: Gaztela eta Leon, Galizia, Araba, Nafarroa, Aragoi (Huescan izan ezik), Oviedo, mendebaldeko Andaluzia, Kanariak eta Balearrak (Menorcan izan ezik).

Eremu hiritar eta industrializatuek (Euskal Herria, Katalunia, Madril eta ekialdea) Errepublikari leial jarraitu zioten. Horrela, hiru urte luzez elkarren aurka aritu ziren bi Espainiak sortu ziren.

Errepublikarekiko alderdi leiala burgesia txikiak, langileek eta lurrik gabeko nekazariak osatu zuten eta altxatutako alderdia, berriz, sektore sozial kontserbatzaileenek, hala nola elizak, militar kontserbatzaileek, nekazari jabeek eta talde katolikoek.

Komenigarria da aipatzea alderdi errepublikanoak ez zuela prestatutako eta bat egindako ejertizorik, alderdi ezkertiarren ideia ideologiko ugarien ondorioz, eta horrek gerraren garapena baldintzatu zuela. Altxatutako alderdiak, berriz, esperientziadun ejertiztoa zuen eta aginte bakarra sortu zuen alderdien indarrak bideratzeko. Francok alderdi guztien babesa zuen, altxamenduaren buru bilakatu zen, bere burua estatuburu izendatu zuen eta Espainia nazionalistaren erabateko boterea hartu zuen bere gain.

Gatazkaren lehen egunetan, gobernu errepublikanoa altxatutako alderdiarekin negoziatzen ahalegindu zen, baina azkenean armak miliziei eman behar izan zizkion. Bi alderdiek laguntza eskatu zuten kanpoan. Alderdi nazionalak Alemaniara eta Italiara jo zuen eta alderdi errepublikanoak Frantziara, Ingalaterrara eta SESBra. Gatazka nazioartean zabaltzeko beldurrez

eta Alemaniaren aurka ez egin behar izateko, Frantziak eta Ingalaterrak Ez esku hartzeko batzordea sortzea bultzatu zuten eta horren xedea alderdietako batek ere nazioarteko laguntzarik jasotzen ez zuela ziurtatzea izango zen. Hogeita sei herrialdek egin zuten bat 1936ko abuztuan sortutako Batzorde harekin, baina ezin izan zuten eragotzi Alemaniak, Italiak eta SESBk aurka jarritako alderdiei laguntza ematea.

Alderdi nazionalak armamentua eta hornidurak jaso zituen Italiaren eta Alemaniaren eskutik eta, horrela, azken herrialde horrek ondoren Bigarren Mundu Gerran erabiliko zuen armamentua probatu zuen. Alderdi errepublikanoak SESBn eta Nazioarteko Brigaden laguntza jaso zuen.

Altxamenduaren helburu nagusia Madril hartzea zen, baina milizien jarduerari eta herriak hiriburua defendatzeko zuen borondate sendoari esker, ez zuten hain erraz lortu eta horrek gerra luzatu zuen.

### Gernikako bonbardaketa

Gernikako herria, euskal nazionalismoaren ikurra, Alemaniako Kondor Legioak bonbardatu zuen 1937ko apirilaren 26an eta hiru orduz airetik erasotu ostean, herria erabat suntsituta geratu zen. Hildako ugari eragin zituen eraso harekin, altxatutako alderdiak errepublikanoak kikildu nahi zituen eta Bigarren Mundu Gerran erabiliko ziren armak probatu. Bonbardaketaren albisteak iritzi publikoa astindu zuen eta matxinatutako alderdiak errepublikanoak egin nahi izan zituen sarraskiaren erantzule.

Azkenik bonbardaketaren erantzukizuna aitortu zuten, baina Gernika hutsegite baten ondorioz bonbardatu zutela defendatzen dute.

Picassok *Guernica* koadroan jaso zuen bonbardaketa eta Gobernu errepublikanoak Parisko Erakusketa Unibertsalean (1937ko ekaina) Espainiako pabiloian erakusgai jartzeko erosi egin zuen. Gerra amaitu zenean, Picassok erregimen demokratikoa ezarri arte koadroa Espainian ez erakusteko nahia azaldu zuen eta, beraz, koadroak asko bidaiatu zuen Europan eta Estatu Batuetan 1981ean Espainian erakusgai jarri aurretik. *Guernica* gerrako izugarrikeriaren ikur bilakatu da.

## Espainiako gerra zibilaren ondorioak

Gerrako ondorio nagusiak aipatzean, ezinbestekoa da ondorio demografikoak aipatzea lehenik eta behin. Hildakoen kopurua milioi bat ingurukoa izan zela kalkulatzen dute (kopuru hori oraindik ere eztabaidagai da) eta horien artean sartzen dira: batailan hildakoak, gerran eta gerra ostean fusilatutakoak eta gaixotasunen ondorioz hildakoak.

Horrez gain, jaiotza-tasaren beherakada gertatu zen. Ondorio sozialekin lotuta, 1939ko otsailean Erantzukizun Politikoen Legea argitaratu zela gogoratu behar da. Erregimen frankistak errepublikaren alde egin zuten guztiak kondenatu eta exekutatu nahi zituen lege horrekin. Erregimenak errepresaliatutakoen artean aldez aurreko eginkizunetatik garbitutakoak (horren adibide dira bidegabeki beren postuetatik kargugabetutako funtzionarioak), kontzentrazio-esparruetako presoak, komunikabide-sareetakoak eta eraikinetakoak sartzen dira. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta industriako produkzioak zorrozki egin zuen behera, prezioek asko egin zuten gora eta ez zen urre, ez dibisa erreserbarik geratu eta, ondorioz, espainolak gosetean eta errazionamenduan murgildu zituen krisi ekonomikoa sufritu zuen herrialdeak. Erregimena elikagaiak inportatzera behartuta egon zen eta horrek sektore industrialak bultzatzeko materialak erosi ahal izatea zaildu zuen.

Gerra amaitzean, ondorio politikoak etorri ziren: Francoren erregimenaren fase autarkikoa eta ia berrogei urte iraun zituen diktadura. Erregimen berriaren gako ideologikoak dira: botereen kontrola, katolizismoaren defentsa porrokatua eta antikomunismoa. Erregimenaren bereizgarri diren beste ezaugarri batzuk hauek dira: printzipio demokratikoen eta adierazpen-askatasunaren erabateko gaitzespena, elkartzeko eskubidearen murrizketa eta Konstituziorik ez existitzea. Ez zen hauteskunderik egin eta 1942an Gorteak sortu ziren. Gorteak Francok izendatutako kideez osatuta zeuden eta haien egitekoa gobernuaren proiektu guztiak onartzea zen.

Espainiako agintea hartzeko, altxatutako alderdiak herriak aukeratutako gobernua armak erabilita erorarazi zuenez, Francoren erregimenak ez zuen mendebaldeko demokrazien babesik, ezta nazioarteko erakunde nagusien babesik ere, eta ondorioz nazioarteko isolamendua indartu zen. Isolamendu horrek berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte iraun zuen eta handik aurrera pixkanaka nazioarteko erakunde batzuetan sartzen hasi zen, Estatu Batuen babesari esker.

## La mujer en la guerra civil Española

Francoren diktaduraren pean, emantzipaziorantz, berdintasunerantz eta herritartasunerantz bideratutako emakumezkoen bidea modu basatian itxi zuten. Estatu berriak errepresioa, eskubideen indargabetzea eta askatasun-gabezia nagusi izan ziren hainbat hamarkada ezarri zuen.

Emakumezkoen rola izandako definizio berria funtsezko elementua izan zen erregimen diktatorialaren errepresioaren prozesuan, diziplina-boterean eta gizarte patriarkala eta nazional katolikoa ezartzeko prozesuan. Legeen, araudien, hezkuntza-ereduen eta **Emakumezkoen Sekzioaren** bidez, erregimen frankistak emakumezkoen arketipo arkaiko eratsua eta esanekoa ezarri zuen. Emakumezkoak esparru publikoko jarduera guztietatik kanporatzen zituen eta etxea eta familia ziren emakumearentzako baimendutako gune bakarrak.

Gizonezkoak nagusi ziren ordena patriarkala ezarri zuen legez eta horrek emakumezkoen derrigorrezko mendekotasuna arautu zuen. Ondorioz, mendeko bihurtu ziren, eskubiderik gabe, etxeko derrigorrezko etxekotasunera zokoratuta. Horren bidez, emakumeak gizonezkoen etengabeko tutoretzapean egotera behartu zituzten, berezko nortasunik gabe.

Gerra Zibilean izandako jardueraren ondorioz edo erregimen diktatorialari erresistentzia egiteagatik, emakume askok errepresio basatia jasan zuen, kartzelaratu egin zituzten edo exekutatu egin zituzten. Dena den, indarkeriaren biktima izateko kausa nagusia, besterik gabe, emakumezko izatea zen. Eta ez hori bakarrik; izan ere, erregimen berriak estigmatizazio sozialeko eredu osoa zuen erreserbatuta haienentzat. Umillazio erritualak ziren, batez ere landa guneetan, emakumeentzat baino ez, eta jendaurrean egiten ziren. Ezagun dira hainbat kasu: ilea larru-arras moztea, errizino-olio bidezko garbiketak, jendaurrean iraintzeko desfileak, eta, betiere, indarkeriak ahaztu gabe,

komisaria, kuartel eta espetxeetan ezohiko ez zirenak. Kartzelen unibertso hartan, militanteak, amak eta emakumezko presoak pilatu ziren frankismoaren errepresio-logika zitalaren pean baldintza negargarrietan. Umiliazio haiek jasateko arrazoia emakumezkoentzat prestatuta zegoen rol tradizionaletik atera zirelako jasan beharreko zigorra zen. "Etxeko aingeruaren" edo "emazte bikainaren" rola eraiki izanaren ondorioz, rol hori ez betetzea zigorra eta iraina jasateko arrazoia zen.

Errepresioa "sexuduna" zela esan dezakegu; izan ere, emakumezkoa gizonezkoen boterearen mende geratzen zen. Ordura arte emakumeek espazio pribatuan betetzen zuten (bake-garaian) eta eragile pasibo zireneko rola hautsi eta testuinguru publikoan emakume aktibo bihurtu ziren (gerra-garaian). Errepresioak erregimenak emakumezkoentzat prestatuta zuen rol pasibo horri amore eman nahi ez zion emakume oro zigortu nahi zuen. Rol hori bera indarkeria mota bat zen eta, ondorioz, emakumezkoek ez zuten ihes egiteko aukerarik.

## ITURRIA

-Henríquez Vera V. 2012. *Aplicación didáctica de la Guerra Civil española en el aula de ELE*. Universidad de Las Palmas de Gran Canaria.

-Graham, H. Breve historia de la guerra civil. Madrid: Espasa Calpe, 2006. ISBN: 84-670-2015-6.

-Fundación Pablo Iglesias-artículo-*"Mujeres bajo la dictadura Franquista"*